



## BANDOA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariaren ebazpenaren bidez, abenduaren 10ean Lehendakariak onartutako 44/2020 Dekretuan eta ondorengo moldaketetan aurreikusitako neurriak ezarri beharreko udalerrien zerrenda zehaztu da. Horren ondorioz, gure udalerrien itxiera perimetrala adostu da, 2021eko urtarrilaren 19ko 00:00etatik aurrera.

Herritarrei jakinarazten zaie, oro har, udalerrira sartu eta udalerritik irten ahal izango dutela soilik jarduera zehatzetarako. Horregatik, beharrezko justifikazio-dokumentuak gainean eramatea eskatzen dizuegu, gorabeherarik egon ez dadin. Honakoak dira jarduera horiek:

- a. Osasun zentroetara, zerbitzuetara eta establezimenduetara joatea.
- b. Laneko edo enpresako betebeharrak, edo betebeharrak profesional, instituzional edo legalak gauzatzea.
- c. Unibertsitate- edo irakaskuntza- eta ikasketa-zentroetara joatea, haur-hezkuntzakoetara barne.
- d. Ohiko edo familiaren bizilekura itzultzea.
- e. Adinekoak, adingabeak, mendekotasuna edo desgaitasuna dutenak edo bereziki zaugarriak diren pertsonak lagundu eta zaintzea.
- f. Erakunde finantzarioetara, aseguru-erakundeetara edo gasolindegietara joatea, mugakide diren udalerrietan.
- g. Organo publikoetan, judizialeetan edo notarialetan nahitaezko edo presazko jarduerak egitea.
- h. Baimenak edo dokumentazio ofiziala berritzea, edo atzeraezinak diren bestelako administrazio-izapideak egitea.
- i. Atzeratu ezin diren azterketak edo proba ofizialak egitea.
- j. Ezinbesteko arrazoiak edo premia-egoera tartean egotea.
- k. Pareko bestelako edozein jarduera, behar bezala justifikatuta badago.

Zabalkunde orokorra izan dezan, hala jakinarazten da, Duranan, 2018ko urtarrilaren 18an.